

Dokumentu honetan **Xabier Bilbao Lopez** euskaldun bikain bezain euskaltzale errimeak aspalditxo UK aldizkarian argitaratutako artikuluetako bat duzue. Xabierrek maisutasunez darabil Getxoko euskara, eta artikulua hauetan, Uribe Kostako euskalki aldaeraren zertzelada nagusiak erakusten dizkigu, geu ere aberastasun horren parte bilaka gaitezen. Alde horretatik, gure eskerrik eta beroenak Xabierrentzat, tantaz tanta isuritako jakinduri urrezko hori ALBEren eskutan ipintzeagatik. Estimatusa dago, Xabier!

Joseba Santxo

2. atala: **BERBALDI AKABUAK ETA ASTEKO EGUNEK**

Akabuko Punteko kuadrutxu barri honetan ikusi ingo du, apurke-apurke, zelan esaten direzen gauzak Uribe Kostako euskeran. Gure helburu ixengo da bertako euskerarik ez dakienari lagundute bertako euskere ulertuten, eta gure badau, bertako euskerako gauzatxu batzuk ikisi eta erabilteko bide emote.

1. Berbaldi akabakeran zer esan.

agur,
húrrengorárten,
ikusi árten,
bier árten,
zapáturarten*,

ondó ibilli / bai, bardin,
íkusko gara
geitú e? / bai, géitukotzut
górantzik emon (dánori, etzékori) / bai, zure partez
mosú emon, mósuk emon (amari, dánori)

(* asteko egunek:

astélena (edo illena)
martítzena
egústena
éguena (egúena)
baríku
zapátu
doméke

Nos? astélenan, martítzenan, egústenan, éguenan, baríkun, zapátun, domékan.
Nosárten? astélenararten, martítzenararten, e.a.
Ností(k)? astélenati(k), martítzenati(k), e.a.

Adibide batzuk:

-Bueno ba, nahiko arrégla du mundu.
-Bai, sásoi ixengo da etzera jóteko. Ze ordu da ba?
-Hamábik laster.
-Ezta íxengo! Bánoa txispatan. Agur!
-Agur, bai.
- - -
-Nik égi dínotzut pa, ni tiñótelez pasa da!

-Egi diñozule? Ixilik zauz.
-Pregúntaotzezu zure andreri.
-Zúez éleite barbarik iñ. Bánoa etzerántza.

- - -

-Guk áurrerantza íngo du. Zúok norántza zoaze?
-Gu Sopelarántza.
-Gu Getxorántza. Geitúzue nozonoz.
-Bai, ahal dúnen. Ondó ibilli.
-Zúok beré bai. Agur.

Oharra: Azentuk imini duz berba batzuten, eta beste batzuten ez. Azenturik ez dekon berbe esakunen erdin badau ez da azenturik ahoskatu behar; ostera, berba hori esakunen akabuko bada edo koma baten aurren badau, azentu ahoskatu behar da azkeneko bokalan ganen. Hau astiroau ikusko du beste aldi baten.